# HAMARGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1) Zertako sartzen da pulliki erretora?
2) Zer gertatzen zaio?
3) Zertako hasten da oihuka eta garrasiaka?

## (II)

### 4 - ERREGINA HIRRIZ

Pulliki pulliki, harrabotsik batere gabe, sartzen da orduan ganbaran. Muthikoa lo zagon ederki, bere bildotxa bethi besoetan. Bildotxari beharri batetarik lotzen zaio erretora. Marrakaz hasten da alimalea, muthikoa atzartzen, apheza harritzen eta ihes egin behar duela abiatzen... Baduk hoberik!... Nihundik ez dezake utz bildotxaren beharria!...

«Hel! Hel!»[1] oihuka hasten da orduan eta karrasiaka. Oihu hetarat atzarririk, lasterka hor heldu da gelaria[2], harro harroa ileak, zilo handi bat tarrapatan ezarri duen soineko tzarraren erdi erdian. Bere nausia lagundu beharrez, bildotxaren bertze beharriari lotzen da, eta ezin diro utz gehiago. Muthikoa bildotxari tiraka, tiraka hari berari erretora eta gelaria, kanpora badoazi hiruak trumilka...

Baratzean iragaitearekin, bere buruaz ahalkcturik, azahosto handi bat hartzen du gelariak eta emaiten gibel-aldean, soineko ziloaren estaltzeko. Eta badoazi, furfarian, herrian harat, Jauregiko alderat.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31 - Lo zagon
32 - Lotzen zaio
33 - Ez dezake utz
34 - Baduk hoberik
35 - Ezin diro
36 - Kanpora badoazi

### 31 EGON. Indicatif

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni mago = je reste | N. nindagon = je restais |
| Hi hago = tu restes | H. hindagon = tu restais |
| Zu zaude = vs restez | Z. zinauden = vs restiez |
| Hura dago = il reste | H. zagon = il restait |
| Gu gaude = ns restons | G. ginauden = ns restions |
| Zuek zaudezte = vs restez | Z. zinaudezten = vs restiez |
| Hek daude = ils restent | H. zauden = ils restaient |

### 33. UKAN. Potentiel Présent

| CDS | CDP |
|---|---|
| Nik ukan dezaket = je peux l'avoir | N. ukan ditzazket = je p. les avoir |
| Hik — " — dezakek/n = tu peux l'avoir | H. — " — ditzazkek/n = t. p. les avoir |
| Zuk — " — dezakezu = vs pouvez l'avoir | Z. — " — ditzazkezu = v. p. les avoir |
| Harek — " — dezake = il peut l'avoir | H. — " — ditzazke = il p. les avoir |
| Guk — " — dezakegu = ns pouvons l'avoir | G. — " — ditzazkegu = n. p. les avoir |
| Zuek — " — dezakezue = vs pouvez l'avoir | Z. — " — ditzazkezue = v. p. les avoir |
| Heiek — " — dezakete = ils peuvent l'avoir | H. — " — ditzazkete = i. p. les avoir |

### 32. IZAN. Régime Indirect Indicatif Présent

#### Singulier

##### Hura da = Il est

Hura (lui) Zait (à moi) = il m'est
— " — Zaizu (à vous) = il vous est
— " — Zaio (à lui) = il lui est
— " — Zaigu (à nous) = il nous est
— " — Zaizue (à vous) = il vous est
— " — Zaie (à eux) = il leur est

##### Ni naiz = Je suis

Ni (moi) nitzaizu (à vous) = je vous suis
— " — nitzaio (à lui) = je lui suis
— " — nitzaizue (à vous) = je vous suis
— " — nitzaie (à eux) = je leur suis

### 34. UKAN. Conjugaison Familière Indicatif Présent.

| CDS on s'adresse à un homme | CDS on s'adresse à une femme |
|---|---|
| Nik diat = je l'ai | Nik dinat = je l'ai |
| Hik duk = tu l'as | Hik dun = tu l'as |
| Harek dik = il l'a | Harek din = |
| Guk diagu = ns l'avons | Guk dinagu = |
| Zuek duzue = vs l'avez | Zuek duzue = |
| Heiek die = il l'a | Heiek dine = etc. |

CDP à h. = n. ditiat, h. dituk, h. ditik, g. ditiagu, h. ditie = je les ai etc.
CDP à f. = n. ditinat, h. ditun, h. ditin, g. ditinagu, h. ditine = je les ai etc.